

INFORMATZEKO BETEBEHARRA NOLA GAUZATU AZALTZEKO GIDA



**INFORMATZEKO
BETEBEHARRA
NOLA
GAUZATU
AZALTZEKO GIDA**

Aurkibidea

1	Norentzat da gida hau?	4
2	Zertan aldatzen du DBEOK informatzeko betebeharra?.....	4
3	Nork eta noiz eman behar du informazioa?	5
4	Non eta nola informatu?	6
5	Informazioa hainbat geruzatan	7
6	Oinarrizko informazioa (lehenengo geruza)	8
7	Informazio osagarria (bigarren geruza).....	11
7.1	“Arduraduna” epigrafea.....	12
7.2	“Helburua” epigrafea.....	13
7.3	“Legitimazioa” epigrafea	14
7.4	“Hartzaileak” epigrafea	16
7.5	“Eskubideak” epigrafea.....	17
7.6	“Jatorria” epigrafea	18

1 Norentzat da gida hau?

- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra¹ (aurrerantzean DBEO), datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari buruzkoa eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa da. 2016ko maiatzean argitaratu zen, 2018ko maiatzaren 25etik aurrera nahitaez ezarri beharrekoa da, eta zuzenean aplikatu beharreko araua da. 2018ko maiatzetik aurrera DBEOk ordezkatu egingo ditu Datuak Babesteko Lege Organikoa² (aurrerantzean, DBLO) eta lege organikoa garatzen duen 1720/2007 Errege Dekretua, eta hainbat aldaketa eta berrikuntza dakartzanez, egungo tratamenduak nahitaez egokitu beharko dira ezarpen data baino lehen.
- Gida honen berriazko xedea da egin beharreko datu tratamenduen inguruabarrei eta baldintzei buruzko eta interesdunek dituzten eskubideei buruzko **argibideak ematea, behar bezala betetzeko interesdunak informatzeko eginbidea**, gardentasunaren printzipioari jarraiki. Beraz, gidak helburu bakarra horixe du, eta DBEOren ezarpenaren gainean datuak babesteko agintaritzek eman dezaketen beste gida batzuekin osatu beharko da.
- Gidaren hartzaile nagusiak dira, batetik, DBEOren ezarpen eremuko tratamenduen arduradunak,³ eta, bestetik, euren erakundeetan edo tratamendu⁴ eragile moduan jardunez, tratamendu-arduradunei Erregelamenduaren indarrez dituzten betebeharrei buruzko aholkularitza emateko lanetan diharduten profesionalak.
- Aldi berean, gida hau bereziki zuzenduta dago Datuak Babesteko Ordezkararen⁵ (aurrerantzean, DBO) rola betetzen edo beteko dutenei. Figura hau berria da gure esparruan, baina DBEOk garrantzi handia aitortzen dio.

2 Zertan aldatzen du DBEOk informatzeko betebeharra?

- **Gaur egun**, DBLOk dio honako informazioa eman behar zaiela interesdunei, datuak eskatzen zaizkien neuan:
 - ✓ Fitxategi edo tratamendu bat dagoela, helburua eta hartzaileak.

¹ B.O.E.: <https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf>

² B.O.E.: <https://www.boe.es/buscar/pdf/1999/BOE-A-1999-23750-consolidado.pdf>

³ “Arduraduna”: “bakarrik edo beste batzuekin batera, **fitxategiaren helburuak eta bitartekoak erabakitzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa**, agintaritza publikoa, zerbitzua edo bestelako erakundea”

⁴ “Eragilea”: “tratamenduaren **arduradunaren izenean, datu pertsonalak tratatzen dituen** pertsona fisiko edo juridikoa, agintaritza publikoa, zerbitzua edo beste edozein erakunde”

⁵ “Datuak Babesteko Ordezkarria”: “pertsona fisikoa edo juridikoa, plantillan ala zerbitzu-kontratu baten esparruan jardun dezakeena, eta DBEOren betekizunei buruzko informazioa eta aholkularitza ematen diena arduradunari, eragileari eta tratamenduarekin diharduten langileei, eta betetzen dela gainbegiratzen duena, kontrol-agintaritzarekin lankidetzan eta horiekiko harremanetarako puntu moduan jardunez”

- ✓ Nahitaez erantzun behar duten ala ez, eta ondorioak.
- ✓ Datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak erabiltzeko aukera dutela.
- ✓ Tratamenduaren arduradunaren identitatea eta harremanetarako datuak.
- **Aurrerantzean, DBEOk** beste betekizun batzuk gehiago ezartzen dizkio interesdunak informatzeko betebeharrari, eta “tratamenduaren”⁶ kontzeptua zabaltzeaz gain, honako xehetasunak gehitzen ditu oro har:
 - ✓ Datuak Babesteko Ordezkariaren harremanetarako datuak, halakorik egonez gero.
 - ✓ Tratamenduaren oinarri juridikoa edo legitimazioa.
 - ✓ Informazioaren kontserbazio-epea edo irizpideak.
 - ✓ Erabaki automatizaturik dagoen ala ez, eta profilik egingo den.
 - ✓ Transferentziarik aurreikusten den ala ez hirugarren herrialdeetara.
 - ✓ Kontrol agintaritzei erreklamazioa aurkezteko eskubiderik dagoen ala ez.

Eta datuak ez badira interesdunarengandik jasotzen, honako hau ere adierazi beharko da:

- ✓ Datuen jatorria
- ✓ Datuen kategoriak
- Ondorioz, tratamendu-arduradunek **berrikusi eta egokitu egin beharko dituzte** DBLOn oinarritutako prozedurak, ereduak edo inprimakiak DBEOren **behin betiko ezarpen data baino lehen**; eta betekizun berriak jaso beharko dituzte, gida honetan ematen ditugun jarraibideak kontuan hartuta.

Kontuan hartuta betekizunak gehitu dituztela eta ez daudela kontrajarrita DBLOk ezarritako informatzeko betebeharrarekin, gomendatzen duguna da **lehenbailehen** berrikustea eta ezartzea egokitzapena.

- Xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikusi DBEOren 13. eta 14. artikulua, interesdunen informatzeko eskubideari buruzkoak.

3 Nork eta noiz eman behar du informazioa?

- **Tratamenduaren arduradunak eman behar die** interesdunei euren datu pertsonalen tratamenduari buruzko inguruabarren gaineko informazioa.

⁶ “Tratamendua”: “datu pertsonalen ganean edo datu pertsonalen multzoen ganean egiten den edozein eragiketa eta eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabilia zein erabili gabe, hala nola: datu-bilketa, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo sarbidea emateko beste edozein forma, datuak alderatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea” (DBEOk ez darabil “fitxategiaren” kontzeptua)

- Interesdunei **datuak eskatzen dizkieten unean bertan** eman beharko diete informazioa, datuak **jaso edo erregistratu** aurretik, datuak interesdunak eman baditu zuzenean.
- Datuak interesdunarengandik jaso ordez, beste datu lagatze legitimo batetik edo jendearen eskurako iturri batetik jasotzen badira, arduradunak **arrazoizko epe batean** eman beharko die informazioa interesdunei. Edozelan ere, honako baldintzak bete beharko ditu:
 - ✓ Hilabete igaro baino lehen, datu pertsonalak jaso zirenetik.
 - ✓ Interesdunarekin izandako lehenengo komunikazioan edo lehenago.
 - ✓ Datuak beste hartzaile batzuei jakinarazi aurretik, halakorik gertatuz gero.
- Informazioa emateko eginbeharra bete egin beharko da, eta **ez da beharrezkoa inork eskatzea**. Gainera, arduradunak gerora **egiaztatu ahal izango du** eginbeharra bete egin duela.

Noiz EZ da beharrezkoa informatzea?

- Ez da informaziorik eman behar **interesdunak baduenean informazioa**. Eta datu pertsonalak interesdunarengandik jaso ez direnean ere, ez da informaziorik eman beharko, baldin eta:
 - ✓ Informazio horren komunikazioa ezinezkoa bada edo neurritz kanpoko ahalegina eskatzen badu.
 - ✓ Informazioa lortzea edo komunikatzea berariaz ezarria baitago tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaion Batasunaren edo estatu kideen zuzenbidean.
 - ✓ Datu pertsonalek konfidentzialak izaten jarraitu behar badute, sekretu betebeharratean oinarrituta.

4 Non eta nola informatu?

- Informazioa biltzeko prozedurak era askotakoak izan daitezke, eta, beraz, interesdunak informatzeko moduak ere egokitu egin beharko dira datuak biltzeko edo erregistratzeko erabili diren modu bakoitzaren ezaugarrietara. Adibidez, behean daude zerrendatuta datuak biltzeko ohiko moduak. Horrek esan nahi du informazioa ere horrela eman beharko dela:

<ul style="list-style-type: none"> ✓ Paperezko inprimakia ✓ Nabigazioa edo web formularioa ✓ Jarduera pertsonaleko datuak 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Telefono bidezko elkarrizketa ✓ Aplikazio mugikorretako erregistroak ✓ Sentsoreetako datuak (IoT)
--	---
- Bestalde, interesdunei egin behar zaizkien komunikazioak, jadanik eskuragarri dauden datuei buruzkoak edo tratamendu osagarriei buruzkoak, honela bidal daitezke:

- ✓ Posta
- ✓ Mezularitza elektronikoa
- ✓ Zerbitzuetan eta aplikazioetan azaleratzen diren jakinarazpenak

- Bitarteko bakoitzak ezaugarri propioak ditu hedadurari, leku libreari, irakurgarritasunari, informazioak uztartzeko aukerei dagokienez, besteak beste. Hala ere, interesdunei honela eman behar zaie informazioa:
 - ✓ Hizkera **argia eta erraza** erabilia.
 - ✓ **Laburki, gardentasunez eta erraz ulertzeko eta eskuratzeko eran.**

5 Informazioa hainbat geruzatan

- DBEOK informazio gehiago emateko agintzen duenez, datuak babesteko agintaritzek gomendatzen dute **hainbat geruza edo mailatan** antolatzeke informazioa, ahalik eta modurik zehatzenean eta ulergarrienean aurkezteko.
- Informazioa hainbat mailatan emateko, honela jokatu behar da:
 - ✓ Datu bilketaren unean eta datu bilketa egiteko erabilitako baliabidea erabiliz aurkeztu beharko da **oinarrizko informazioa** (lehenengo maila), **laburtuta**.
 - ✓ **Informazio osagarria**, ordea, bigarren mailan aurkeztuko da, gainontzeko informazio guztiarekin eta **zehaztasun guztiekin**, eta aurkezpena modu egokian eta ulergarrian egiteko baliabide baten bidez, nahi izanez gero, artxibatzeke.
- DBEOK agintzen duen informazioa hainbat **multzo edo izenburupetan** sailkatu daiteke, informazioa hobeto antolatu eta aurkezteko, batez ere lehenengo mailan edo geruzan laburtuta aurkeztu behar den informazioari dagokionez.

Modu bat izan daiteke behean adierazita dugun bezala egitea, hau da, epigrafea eta maila edo geruza bakoitzeko informazioa laburtuta:

Epigrafea	Oinarrizko informazioa (1. geruza, laburtuta)	Informazio osagarria (2. geruza, zehaztasun guztiekin)
"Arduraduna" (tratamenduarena)	Tratamenduaren arduradunaren identitatea	Arduradunarekiko harremanetarako datuak
		Ordez kariaren identitatea eta harremanetan jartzeko datuak
		Datuak Babesteko Ordez kariarekin harremanetan jartzeko datuak
"Helburua" (tratamenduarena)	Tratamenduaren helburuen azalpen erraza, profilak egiteari buruzkoa ere bai	Tratamenduaren helburuen azalpena zehaztasunekin
		Datuen kontserbazio epeak edo irizpideak
		Erabaki automatizatuak, profilak eta erabilitako logika

“ Legitimazioa ” (tratamenduarena)	Tratamenduaren oinarri juridikoa	Tratamenduaren oinarri juridikoa, lege-betebehar bat konplitzeko, edo interes publikoaren edo legitimoaren izenean denean.
		Datuak ematera behartuta dagoen ala ez, eta jakitun dagoen datu horiek eman ezean zer nolako ondorioak izango dituen
“ Hartzaileak ” (lagapenenak edo transferentzienak)	Lagapenak aurreikusten diren	Hartzaileak edo hartzaileen kategoriak
	Transferentziarik aurreikusten den ala ez hirugarren herrialdeetara	Egokitzapen erabakiak, bermeak, arau korporatibo lotesleak edo egoera espezifiko ezargarriak
“ Eskubideak ” (interesdunenak)	Eskubideei buruzko aipamena	Nola egikaritu datuak atzitzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko, datuen eramangarritasunaren eta datuen tratamendua mugatzeko eta tratamenduei aurka egiteko eskubideak.
		Adierazitako adostasuna kentzeko eskubidea
		Kontrol agintariei erreklamatzeko eskubidea
“ Jatorria ” (datuena)	Datuen jatorria (interesdunarengandik jaso ez direnean)	Datuen jatorriari buruzko informazio zehatza, jendearen eskurako iturrietatik badatoz ere bai
		Datuen kategoria

- Gomendatzen da beti jartzea lehenengo bost epigrafeak (“Arduraduna”, “Helburua”, “Legitimazioa”, “Helburuak” eta “Eskubideak”), eta “Jatorria” gehitzea bakar bakarrik datuak ez direnean jaso interesdunarengatik.
- Azpimarratu behar da maila askotariko ikuspegi honen helburuak direla, batetik, tratamenduaren **arduradunari lana erraztea** prozedurak eta formularioak diseinatzeko orduan; eta, bestetik, interesdunek **azkar eta erraz** eskuratzea informazio garrantzitsuena; eta **kalterik egin gabe** DBEOk ezartzen dituen **legezkotasun, leialtasun eta gardentasun printzipioei**.

6 Oinarrizko informazioa (lehenengo geruza)

- Lehenengo geruza aurkezteko modurik egokiena da **taulak** erabiltzea (elikagaien nutrizio-informazioa aurkezten den bezala), eta bermatuz informazioa interesdunaren “ikus eremuan” dagoela, kontuan hartuta informazioa biltzeko erabilitako bitartekoa.
- Taula argi eta garbi identifikatu beharko da, honen antzeko izenburuarekin: **“Datu babesari buruzko oinarrizko informazioa”**
 - ✓ Adibidez, eskabide-inprimakia bada, oinarrizko informazioa jasotzen duen taula eta eskatutakoarekiko adostasuna ikus eremu berean egon beharko dute (paperezko inprimakia bada, sinaduraren tokia, inprimaki edo formulario elektronikoa bada “bidali” botoia), eta interesdunarentzako kopian ere agertzeko moduan.

- ✓ Diseinuak ez badu aukerarik ematen, ohar edo dei bat ipini beharko da sinaduraren ikus eremuan, eta bertan esango da non dagoen datu babesari buruzko informazioa duen taula.

▪ Adibidea: *“eskabidea sinatu aurretik, datu babesari buruzko informazioa ikusi hemen: (orriaren atzeko aldean, orri-oinean eta abar...)”*

- **“Legitimazioa”** epigrafean tratamenduaren oinarri juridikoa aipatu behar da. DBEOK xedatzen ditu zein diren ⁷, eta hainbat aukera daude⁸:

- ✓ “Kontratu bat gauzatzea”
- ✓ “Lege-eginbeharra betetzea”
- ✓ “Interes publikoaren izenean” edo “botere publikoen izenean”
- ✓ “Arduradunaren interes legitimoa” edo “Hirugarren baten interes legitimoa”
- ✓ “Interesdunaren adostasuna”

Tratamendu berak hainbat helburu baditu, tratamenduaren **helburu nagusiaren** legitimazioa hemen adierazi beharko da.

- Oinarrizko informazioaren atalean beti agertu beharko da **“Hartzaileak”** izeneko epigrafea, nahiz eta ez egon aurreikusita datuak hirugarrenei jakinaraziko zaizkienik, informazio horren laguntzarekin interesdunek hobeto ulertuko dutelako tratamendua.

▪ Adibidea: *“Ez zaie daturik lagako hirugarrenei, legeak agindu ezean”*

- **“Eskubideak”** epigrafea ere beti agertu behar da oinarrizko informazioan, eta bertan adierazi zein diren ohiko eskubideak eta aipatu informazio osagarrian eskura dezaketela informazio gehiago.

▪ Adibidea: *“Eskubidea duzu datuak atzitzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko; bai eta beste eskubide batzuk ere, informazio osagarrian azaltzen denez”*

- Azkenik, informazio laburtua dakarren taulaz gain, argi adierazi behar da **non eta nola eskura daitekeen** bigarren geruzako informazio osagarria.

▪ Adibidea: *“Datu babesari buruzko informazio osagarria eta zehatza eskura dezakezu (...papereko testuan bertan, hiperesteka batean eta abar...)”*

⁷ Xehetasun gehiago ikusteko, Tratamenduaren zilegitasunari buruzko DBEOn 6. artikulua ikusi

⁸ Hemen ez da sartzen interesdunaren edo beste pertsona baten “bizi-interesen babesa” Informazio gehiago nahi izanez gero, dagokion atalera jo, informazio osagarriaren barruan.

Adibidea: oinarrizko informazioa paperean.

- Paperezko inprimakian eta taula bidez aurkeztutako informazio laburtuaren adibide bat izan daiteke aldizkari bateko harpidetza. Ikusi honakoa:

Datu babesari buruzko oinarrizko informazioa	
Arduraduna	Ediciones Warren&Brandeis, S.A.
Helburua	Harpidetza kudeaketa
Legitimazioa	Kontratu bat gauzatzea
Hartzaileak	Ez zaie daturik lagako hirugarrenei, legeak agindu ezean”
Eskubideak	Datuak atzitzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko; bai eta beste eskubide batzuk ere, informazio osagarrian azaltzen denez
Informazio osagarria	Datu babesari buruzko informazio osagarria eta zehatza eskura dezakezu gure web orrian: http://www.warrenbrandeis.com/protecciondatos

- Kontuan izan paperezko inprimakia dela, eta informazio osagarriaren aipamena hiperesteka bidez egin dela. Horrela adierazi nahi da kasu honetan ezintasuna materiala dela, hau da, tokirik ez dagoela.

Adibidea: oinarrizko informazioa bitarteko elektronikoetan

- WEb formulario edo inprimaki batean informazioa laburtuta emateko modu bat da eskuratu nahi den informazioa deskargatzeko edo jaisteko eskatzea. Eta, horretarako, merkataritza-informazioko banaketa-zerrenda batean altan eman behar da. Ikusi honakoa:

Datu babesari buruzko oinarrizko informazioa	
Arduraduna	Ediciones Warren&Brandeis, S.A. +info...
Helburua	Informazio bidalketa kudeatzea eta merkataritza prospekzioa +info...
Legitimazioa	Interesdunaren adostasuna +info...
Hartzaileak	Ediciones Warren&Brandeis, Inc. enpresa-taldeko beste enpresa batzuk EBtik kanpoko tratamendu-arduradunak, “Privacy Shield” akordioari atxikita +info...
Eskubideak	Datuak atzitzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko; bai eta beste eskubide batzuk ere, informazio osagarrian azaltzen denez +info...
Informazio osagarria	Datu babesari buruzko informazio osagarria eta zehatza eskura dezakezu gure web orrian: http://www.warrenbrandeis.com/protecciondatos/info/

- Kontuan izan, oinarrizko informazioa emateaz gain, adibide honek hiperesteka bat ere jaso duela. Hiperesteka bakoitzak berari dagokion informazio osagarriko epigrafera bidaltzen du. Praktika hau oso gomendagarria da bitarteko elektronikoen bidez ematen denean informazioa.

Adibidea: oinarrizko informazioa telefono bidezko elkarrizketetan

- Telefono bidezko elkarrizketetan **esamolde argia eta zehatza** erabiliko da oinarrizko informazioa emateko, eta, informazioa bildu aurretik, ziurtatu egin beharko da solaskideak ondo ulertu duela jaso duen informazioa.
- Informazio osagarria eskuratzeko beste bide batzuk ere eskainiko zaizkio solaskideari. Baina, argibideak eskatzen baditu, **esamolde osagarri baten bidez** eskainiko zaio eskatu duen epigrafeari dagokion informazio osagarria.

7 Informazio osagarria (bigarren geruza)

- Bigarren geruzan ipini behar den informazioak zehaztasun guztiekin osatu behar du informazio laburtua, eta DBEOk eskatutako eta lehenengo geruzan ez zegoen **informazio osagarria gehitu** beharko du.
- Gainera, bigarren geruzan ematen den informazioa osoa izan beharko da. Horrek esan nahi du ez dela informaziorik kendu behar, nahiz eta oinarrizko informazioaren atalean agertu izan.

Nola aurkez daiteke informazio osagarria?

- Bigarren geruza aurkezteko moduak zer ikusia du informazioa emateko erabili den moduarekin; baina, informazioaren luzera ez da eragozpena izango. Kasu honetan aukerak malguagoak dira:

Informazio osagarria paperean bada:

- ✓ Bete beharreko inprimakian bertan jar daiteke (adibidez, atzeko aldean).
- ✓ Aparteko inprimaki edo eranskin batean jar daiteke, interesdunari emateko eta gordetzeko modukoa.
- ✓ Ondo ikusteko toki batean jar daiteke, karteletan, paneletan, triptikoetan eta antzekoetan ipiniz informazioa, baina, informazioa gordetzeko moduko kopia erabilgarriak eskatzeko aukerarekin.

Informazio osagarri elektronikoa

- ✓ Hiperesteka bidez, berariazko web orri batean jar daiteke.
- ✓ URL batetik jaisteko moduko dokumentu batean jar daiteke.
- ✓ Interesdunari bidali beharreko mezu elektronikoa atxikitako edo erantsitako informazioa jar daiteke.

Informazio osagarria telefono bidez:

- ✓ Interesdunari eskaintzen zaion esapide bat izan daiteke, bitarteko elektronikoen bidez eskuragarria den edo posta arruntez edo elektronikoz bidalitako informazio gehigarriaren osagarri moduan edo horren orde.

Nolako hizkera erabili behar da?

- Hizkera **argia, zehatza eta ulergarria** erabili behar da. Hona zenbait gomendio hizkeraren estiloari begira jarraitu daitezkeenak:
 - ✓ Gomendatzen da azalpena ondo **egituratuta** aurkeztea, galdera eta erantzunen sistema erabilia, eta lehen azaldutako epigrafe orokorrei kasu eginez.
 - ✓ **Zehaztasunaren eta ulergarritasunaren** artean oreka lortu behar da, itzulinguruak, alferrikako azalpenak edo xehetasun nahasgarriak saihestuz.
 - ✓ **Ahal bada, ez erabili** legezko aipamenik, hizkera nahasgarririk edo termino anbiguorik edo hartzaileentzat zentzu gabeak.

Zein informazio jaso behar da epigrafe bakoitzean?

- Epigrafe bakoitzaren luzera eta zehaztasuna erabakiko da kasu bakoitzaren konplexutasunaren arabera. Ondoko ataletan daude azalduta epigrafe bakoitzaren adibide batzuk, eta lehen jarritako balizko adibideekin alderatu daitezke ("*Ediciones Warren & Brandeis, S.A.*").
- Bestalde, gardentasuna eta leialtasuna hobetu egin daitezke, **DBEOk eskatu gabeko** informazio osagarria borondatez emanaz, ondoko gaiei buruz:
 - ✓ Jardunbide onak, bermeak eta ezarritako neurri osagarriak.
 - ✓ Berariaz saihestuko diren erabilerak eta jardunbideak.

datu pertsonalen babesa hobetzen laguntzeko eta interesdunengan **konfiantza sortzeko**.

7.1 "Arduraduna" epigrafea

- Tratamenduaren arduradunaren identitatea jadanik emanda badago ere oinarrizko informazioaren atalean, informazio osagarriaren atalean osatu egin beharko da, honako datuak gehituz:
 - ✓ Tratamenduaren arduradunaren identitatea eta harremanetarako datuak, eta, halakorik ez badago⁹, bere ordezkariarenak.
 - ✓ Datuak Babesteko Ordezkariaren harremanetarako datuak¹⁰, halakorik badago.

⁹ Arduraduna ez dagoenean Europar Batasunean kokatuta, ordezkari bat izendatu beharko Europar Batasunean. Informazio gehiago behar izanez gero, DBEOn 27. artikulura jo.

- Harremanetako datuen artean egon behar du beti **posta helbide bat**, eta **helbide elektronikoa bat** edukiz gero, hori ere bai.
 - ✓ Komenigarria da posta helbidea **lokalizatua** izatea. Hala ere, aukera egongo da posta-kutxa bat emateko.
 - ✓ Helbide elektronikoa era askotakoa izan daiteke: posta elektrikoaren helbide bat, aplikazio bateko sarbidea den URL bat edo harremanetarako inprimaki elektronikoa bat.

▪ Adibidea: **Nor da zure datuen tratamendu arduraduna?**

Identitatea: Ediciones Warren&Brandeis, S.A. - IFZ: A01234566

Posta helbidea: Universidad de Harvard kalea 5 - 28000 – Madril

Telefonoa: 912345678

Posta elektronikoa: info@warrenbrandeis.com

Datuak Babesteko Ordezkaria:

DBOren kontaktua: <https://www.warrenbrandeis.com/protecciondatos/dpd/>

7.2 “Helburua” epigrafea

- Lehenengo geruzan helburua zein den azaldu behar da laburtuta, baina bigarren geruzan zehaztasun handiagoarekin eman behar da **tratamenduaren helburuei** buruzko informazioa, eta adierazi behar da datu pertsonalak kontserbatzeko **epea** zein den edo, hori ezinezkoa denean, epea zehazteko erabilitako **irizpideak**.
 - ✓ Kontuan eduki behar da “helburua mugatzeko printzipioak” xedatzen duela datuak helburu **zehatz, esplizitu eta legitimoei** begira bilduko direla, eta, ondoren, ezin izango direla helburu horiekin bateragarriak ez diren moduan tratatu.
 - ✓ Datu pertsonalen **geroko** tratamenduren bat proiektatzen bada eta **hasierako helburuekin bateraezintzat** jotzen bada, geroko tratamendua burutu **aurretik**, beste helburu horri buruzko informazioa eta edozein informazio osagarri garrantzitsu eman behar da zaizkio lehendabizi.
- Era berean, adierazi behar da ea **erabaki automatizaturik** dagoen ala ez, **profilak** egitea barne, eta, halakorik baldin badago, kasu horietan behinik-behin, erabilitako logikaren gaineko informazio esanguratsua emango da eta interesdunarentzat tratamendu horrek duen garrantzia eta izan ditzakeen **ondorioak**¹¹.

¹⁰ Ez da argitaratu behar datuak babesteko ordezkararen identitatea, harremanetarako datuak baizik

¹¹ Erabaki automatizatuei buruzko informazio gehiago behar izanez gero, DBEOren 22. artikulura jo.

▪ Adibidea: **Zein helbururekin tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?**

“Warren & Brandeis enpresan interesdunek bidaltzen diguten informazioa helburu honetarako tratatzen dugu: (...eskatzen diguten informazioaren bidalketak kudeatzea.../ interesdunei euren intereseko produktuen eskaintzak eta zerbitzuak ematea.../...)

“Merkataritza profil bat egingo dugu, emandako informazioan oinarrituta, helburu honetarako: (...zuen interesen arabera produktuak eta zerbitzuak eskaintzeko.../ erabiltzaile gisa duzu esperientzia hobetzea...). Ez da erabaki automatizaturik hartuko profil horretatik abiatuta”

Zenbat denbora gordeko ditugu zure datuak?

“Eman dizkiguzun datu pertsonalak gordeko ditugu (...merkataritza harremanak irauten duen bitartean.../ interesdunak datuak ezabatzeko eskatzen ez badu.../ XX urteko epean interesa berretsi zenuen azken alditik...)”.

- Ahal dela ez erabili oso helburu zehaztu gabeak edo orokorrak, interesdunaren arrazoizko espektatibetatik harantzago doazen tratamenduak ekar baditzakete gerora.

7.3 “Legitimazioa” epigrafea

- Oinarrizko informazioaren atalean ere esan dugunez, honako epigrafe hau tratamenduaren oinarrian dagoen oinarri juridikoari buruzkoa da. Gainera, lehenengo geruzan eskainitako oinarrizko informazioaz gain, honakoa hauek ere hemen jaso beharko dira, kasuaren arabera:

Legitimazioa kontratu bat gauzatzeko:

- ✓ Tratamendua beharrezkoa bada merkataritza, lan, administrazio edo beste arlo bateko kontraturen bat gauzatzeko —interesduna tartean badago, kontratuko alde bat delako—, edo kontratua egin aurreko neurriak ezartzeko, zein kontratu edo kontratu mota den dioen aipamena egin beharko da, argi eta garbi utziz, anbiguotasunik gabe, zertaz ari den.

Legitimazioa, legezko eginbeharra betetzeko:

- ✓ Tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbeharra betetzeko, hau da, Batasunaren zuzenbidetik edo barneko lege-araubidetik datorren obligazioen bat betetzeko bada, **zehatz-mehatz jaso beharko da obligazioa ezartzen duen lege mailako araua.**

Legitimazioa, interes publikoaren izenean edo botere publikoak baliatzeko

- ✓ Tratamendua beharrezkoa denean interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko, tratamenduaren arduradunak (esparru publikoan gertatu ohi denez) **zehatz-mehatz jaso beharko du** obligazioa ezartzen duen lege mailako **araua**, botere publikoak esleitzen dizkiona edo misioa interes publikotzat jotzen duena.

Legitimazioa, arduradunaren edo hirugarren baten interes legitimoa gauzatzeko:

- ✓ Tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunak edo hirugarren batek bilatzen dituen “interes legitimoei” erantzuteko, **esplizitatu egin beharko dira interesok**. Praktika ontzat jotzen da halako oinarri juridikotik datorren legitimazioa ponderatzea¹² interesdunaren gainontzeko interesekin eta oinarritzko eskubideekin eta askatasunekin alderatuta, gardentasun printzipiorako lagungarria bada.

Legitimazioa, interesdunak adostasuna adierazi duelako:

- ✓ Helburu nagusia erdiesteko legitimazioa **ez badator bat aurreko oinarri juridiko batekin ere**, interesdunaren adostasuna eskatu beharko da bere datu pertsonalak tratatzeko, eta **horren berri eman beharko da** epigrafe edo atal honetan¹³.
 - ✓ Edozelan ere, helburu nagusia aurreko oinarri juridikoren batekin bat badator eta legitimatuta badago, baina **berariazko beste helbururen** batek ukituaren adostasuna behar badu, legitimazio **biak jaso beharko dira**.
 - ✓ Halakoetan interesdunari esan egin beharko zaio helburu nagusia **ez dagoela** helburu horretarako behar ez diren datu pertsonalen tratamendurako **adostasunaren mende**; hala egin ezean, ezingo da esan “adostasuna askatasunez eman” denik.
- Datuak komunikatzea lege edo kontratu betekizun bat bada, edo kontratu bat izenpetu ahal izateko beharrezko baldintza bat bada, lehendabiziko hiru legitimazio kasuetan bezala, esan egin beharko da ea **interesdunak bere datu pertsonalak emateko obligazioa duen** ala ez, eta, **eman ezean, zer nolako ondorioak izango dituen**.
 - Azkenik, DBEOK dio tratamendua legitimatzeko beste oinarri juridiko bat dela interesdunaren edo beste pertsona baten **“bizi-interesak babestea”**. Dena den, oinarri juridiko hori ez da jaso legitimazio arrazoiaren artean, bigarren mailakotzat jotzen delako, eta egoera berezietan, premiazkoetan edo bat-batekoetan baino ez denez ezartzen, ezin da hartu tratamendu bat legitimatzeko arrazoi orokortzat.

¹² Gida honen eginkizuna ez da zehaztea noiz de “legitimoa” arduradunaren interes bat. Informazio gehiago behar izanez gero, ikusi 06/2014 Irizpena, “29. artikuluko Lan Taldea”, interes legitimoaren kontzeptuari buruzkoa, honako helbidean:

http://ec.europa.eu/justice/data-protection/article-29/documentation/opinion-recommendation/files/2014/wp217_es.pdf

¹³ Gida honen eginkizuna ez da adostasuna kudeatzeko baldintzak ezartzea. Informazio gehiago behar izanez gero, ikusi 15/2011 Irizpena, “29. artikuluko Lan Taldea”, adostasunaren definizioari buruzkoa, honako helbidean:

http://ec.europa.eu/justice/data-protection/article-29/documentation/opinion-recommendation/files/2011/wp187_es.pdf

- Adibidea: **Zein oinarri juridikok legitimatzen du zure datuen tratamendua?**

“Zure datu pertsonalak tratatzeko lege oinarria da zure eskabide-zorroan dauden aldizkarien harpidetza-kontratu gauzatzea, (...ikus hemen baldintzak eta betekizunak: ...)”

Produktuen eta zerbitzuen aurrera begirako eskaintza oinarrituko da zuri eskatutako adostasunean, eta adostasuna kentzen baduzu ere, harpidetza kontratuak bere horretan jarraituko du”.

- Adostasuna kudeatzeko prozeduretan, ahal bada, ez da erabili behar aldez aurretik markatutako laukitxoaren sistema; izan ere, DBEOk xedatzen du adostasun-adierazpena interesdunaren borondate-adierazpen aske, zalantzarik gabe, zehatz eta arrazoitua islatzen duen **egintza positibo argi** batez egin behar dela.

7.4 “Hartzaileak” epigrafea

- Bildu nahi diren datuak legea betez laga edo komunikatuko direla aurreikusi bada, datu pertsonalen hartzaileen identitatearen berri eman beharko da, aldez aurretik zehaztuta badaude; zehaztuta ez badaude, ordea, hartzaileen kategorien berri eman beharko da.
- Komenigarria da tratamendu-eragileen berri ere ematea, halakorik badago, hain zuzen ere, enkarguaren kontratua burutu behar dutelako eta horrek legitimatzen duelako datu tratamendua, batez ere, datu transferentziak badaude hirugarren herrialdeetara.

- Adibidea: **Zein hartzailei komunikatuko zaizkie zure datuak?**

“Warren&Brandeis, Inc. enpresa-taldeko beste enpresa batzuei komunikatuko dizkiegu datuak, barneko administrazio-helburuetarako, bezeroen edo langileen datu pertsonalen tratamenduak barne”.

“Warren&Brandeis, Inc. enpresa-taldea arau korporatibo lotesleak ditu, Datuak Babesteko Europako Lantaldeak onartutakoak. Hemen daude eskuragarri: [https://www.warrenbrandeis.com/protecciondatos/bcr/Warren&Brandeis S.A. enpresak “hodei konputazioko” eredu baten arabera kontratatzen du azpiegitura birtuala, AWS plataformaren bidez eta EU-US Privacy Shield akordioaren babesean. - Informazioa eskuragarri dago hemen:](https://www.warrenbrandeis.com/protecciondatos/bcr/Warren&Brandeis_S.A._enpresak_“hodei_konputazioko”_eredu_baten_arabera_kontratzen_du_azpiegitura_birtuala,_AWS_plataformaren_bidez_eta_EU-US_Privacy_Shield_akordioaren_babesean._-Informazioa_eskuragarri_dago_hemen:)

<https://www.privacyshield.gov/participant?id=a2zt0000000TOWQAA4>

- Datuak hirugarren herrialde batera edo nazioarteko erakunde batera eskualdatzea aurreikusi bada, horren berri eman behar zaie interesdunei, bai eta datu transferentziari eragiten dioten baldintzen berri ere, bereziki, esan beharko zaie ea Batzordearen egokitzapen-erabakirik dagoen ala ez, dena delako hirugarren herrialdeari edo nazioarteko erakundeari dagokionez.
- Arduradunak berme egokiekiko edo egokituekiko erreferentzia eta bermeak ematen dituenean, horien berri emango da, eta horien kopia bat lortzeko bitartekoen berri edo haiek eskuragarri jarritako tokiaren berri ere bai. Bermeak honakoak izan daitezke:

- ✓ Agintarien edo erakunde publikoen arteko tresna juridiko lotesleak.

- ✓ Arau korporatibo lotesleak¹⁴, enpresa-talde batekoak.
- ✓ Datu-babesari buruzko klausula-ereduak.
- ✓ Jokabide-kodeak.
- ✓ Ziurtapen-mekanismoak.

7.5 “Eskubideak” epigrafea

- Atal honetan esan beharko zaie interesdunei zein eskubide dituzten tratamenduaren arduradunaren aurrean. DBEOk dioenez, honako hauek dira:
 - ✓ Interesdunaren eskubidea bere datu pertsonalak atzitzeko,
 - ✓ Datuak zuzentzea edo ezabatzea eskatzeko eskubidea.
 - ✓ Datuen tratamendua mugatzea eskatzeko eskubidea.
 - ✓ Datuen tratamenduari aurka egiteko eskubidea.
 - ✓ Datuen eramangarritasunari buruzko eskubidea.
- Arduradunak argi eta garbi azaldu beharko dio interesdunari **nola egikaritu** ditzakeen eskubide horiek. Eta, horretarako, ereduak eta inprimakiak eskainiko dizkio, eta azaldu nola jarri harremanetan eskubidea egiteko. Beste aukera bat da interesduna bidaltzea kontrol agintaritza eskumendunera, han eskatu dezan eskubideei buruzko informazio osagarria.
- Horrez gain, interesdunak adostasuna adierazi badu helburu jakin baterako, esan egin beharko zaio **adostasuna** edozein unetan **kentzeko** eskubidea duela, eta horrek ez duela inongo eraginik adostasuna kendu aurreko tratamenduaren zilegitasunean.
- Datuk babesteko kontrol-agintaritza eskumendun batean **erreklamazio bat aurkezteko** eskubidea dutela ere esan behar zaie interesdunei, batez ere, ez badute lortu nahi bezala egikaritzea eskubideok, ez eta kontrol agintaritzarekin nahi bezala jartzea harremanetan.

¹⁴ «arau korporatibo lotesleak»: “estatu kide baten lurraldean tratamenduaren arduradun edo eragile batek datu pertsonalen babesaren gainean ezartzen dituen politikak, datu pertsonalen transferentziak edo transferentzia-multzoak egiteko hirugarren herrialde bateko edo gehiagotako arduradun edo eragile bati, enpresa-talde baten barruan edo jarduera ekonomiko bateratua egiten duen enpresa-elkarte baten barruan”

- Adibidea: **Zein eskubide dituzu datuak zuk zeuk ematen badizkiguzu?**
 - “Pertsona orok du eskubidea jakiteko ea Warren&Brandeis enpresa-taldean berari buruzko datu pertsonalak tratatzen ari garen ala ez.
 - *Interesdunek eskubidea dute euren datu pertsonalak atzitzeko, berari buruz dauden datu okerrak zuzentzeko eskatzeko edo datu horiek ezerezteko eskatzeko, batez ere datu pertsonalak jadanik ez badira beharrezkoak bildu zirenean zeuden helburuen argitan.*
 - *Egoera jakin batzuetan interesdunak eskubidea izango du datuen tratamendua mugatu dezaten eskatzeko, eta halakoetan bakar bakarrik gordeko ditugu erreklamazioak egikaritzeko edo aldezteko.*
 - *Egoera jakin batzuetan, bere egoera partikularra dela eta, interesdunak eskubidea izango du, edozein unetan, bere datu pertsonalen tratamenduaren aurka egiteko.* Warren&Brandeis enpresa-taldeak datu pertsonalak tratatzeari utziko dio, noiz eta ez duen egiaztatzen arrazoi legitimo larriak daudela tratamenduari eusteko, edo balizko erreklamazioak aldezteko.
 - (...)

- Adibideak, ordea, ez ditu kasu guztiak jasotzen. Bere helburua ez da informazioa emateko dauden aukerak murriztea bere horretan, ez eta tratamendu guztientzako eredu izan. Kontrara, adibidearen asmoa da kasu jakin batzuetarako balio duen informazio eredu bat irudikatzea, eman beharreko gutxieneko informazioarekin.

7.6 “Jatorria” epigrafea

- Datuen jatorriari buruzko atala edo epigrafea agertu beharko da datu pertsonalak ez badira jaso interesdunarengandik, edo datu lagatze legitimo batetik datozenean edo jendearen eskurako iturrietatik datozenean.
 - Informazioa emateko moduak hasiera batean ez dira bat etorriko datu-bilketa egiten den unean informatzeko erabiltzen diren bitartekoekin. Modurik egokienak honakoak dira:
 - ✓ Posta
 - ✓ Posta elektronikoa
 - ✓ Berehalako mezularitza
- Aztertu egin beharko da ea informazioa emateko modua egokia den informatzeko eginbidea bete dela egiaztatzeko.
- Informazioa ohiko posta bidez edo posta elektronikoa bidez emanaz gero, honela jokatea gomendatzen da:
 - ✓ Interesdunari tratamenduaren berri emateko jakinarazpenean jasoko da oinarritzko informazioa, eta “Jatorria” epigrafe laburtua gehitu.
 - ✓ Aparteko eranskin batean jasoko da informazio osagarria edo guztia, eta “Jatorria” epigrafe handiagotua gehitu.

- ✓ Aukeran esteka bat ipini ahal izango da informazio osagarriarekin modu elektronikoan.
- Berehalako mezularitza bidez eginez gero, komunikazioaren izaerari buruzko aipamen txiki bat egiteko aukera dago, eta horrekin batera esteka bat ipini ahal izango da informazio osagarriarekin modu elektronikoan. Beraz, beste aukerarik ez dagoenean bakarrik erabiliko da. Halakoetan ez dirudi egokia denik telefonoz ematea informazioa.
- Honako informazioa eman behar da:
 - ✓ Datu pertsonalen jatorria, eta, hala badagokio, ea murrizketarik gabe eskuragarri dauden jendearen eskurako iturrietatik datozen.
 - ✓ datuen kategoria, batez ere bereziki babestutako datuak badira.

- Adibidea: **Nola eskuratu ditugu zure datuak?**
- Warren&Brandeis S.A. enpresan tratatzen ditugun datu pertsonalak Warren&Brandeis Inc.enpresa-taldeko enpresetatik datoz.
- Hona tratatzen ditugun datu kategoriak:
 - Identifikazio datuak
 - Identifikazio kodeak edo gakoak
 - Posta helbideak edo helbide elektronikoak
 - Merkataritza informazioa
 - Datu ekonomikoak
- Ez dugu bereziki babestutako daturik tratatzen